

ANIMALIEN ERRESUMA

Kaixo guztioi, gu Animalien Erresuma gara, txakur eta katuentzako hotel berezi bat, non zure maskota zaintzeaz gain, beste hainbat zerbitzu garrantzitsu ere eskaintzen dizkiegu, osasuntsu eta gustura senti daitezen.

Zer egiten dugu?

Zure maskotak zaintzen dituen enpresa profesionala gara, zuk haiekin egoterik ez duzunean: lanean, bidaietan edo bestelako konpromisoetan zaudelako. Badakigu zure maskotak zein garrantzitsuak diren zuretzat; horregatik, arreta fidagarria eta profesionala eskaintzen diegu, animalia bakoitzaren beharretara egokituz.


Gure produktu eta zerbitzuak

Lehenik, **txakur eta katuentzako hotel** bat daukagu Eibarren. Gure hotelean txakurrak eta katuak geratzen dira, etxean bezala senti daitezen eta bakarrik senti ez daitezen. Gela erosoak ditugu, jolastokiak eta behar duten guztia, txakurrak eta katuak oporretan bezala senti daitezen.



Bigarrenik, **albaitaritza profesionala** eskaintzen dugu. Gure albaitariak beti daude eskuragarri, zure animalia-zerbait gertatuz gero. Aldizkako azterketak egiten ditugu, tratamenduak, eta larrialdietarako prest gaude. Zure maskota beti ondo zainduta egongo da!

Hirugarrenik, gure **ile-apaindegi** zerbitzuan zure txakurra beti garbi eta dotore egoteko zerbitzuak eskaintzen ditugu. Mozketa pertsonalizatuak, bainuak eta azala eta ilea zaintzeko tratamendu bereziak eskaintzen ditugu.




Beste aldetik, **heziketa** bereziak ere eskaintzen ditugu, zure txakurrak jokabidea hobetu edo gauza berriak ikasi behar baditu, entrenatzaile profesionalak ditugu klaseak emateko. Oinarrizko trikimailuetatik hasi eta jokabide aurreratuagoetara arte irakasten dugu.



Produktu bezala, **pertsonalizatutako lepokoak** saltzen ditugu. Gure hotelean, lepoko pertsonalizatuak saltzeko denda bat daukagu. Txakur eta katuentzako lepoko modernoak eta pertsonalizatuak saltzen ditugu. Lepoko horiek oso bereziak dira, orain aipatuko ditugun funtzio hauek dituztelako: gauean txakurrak errazago eta azkarrago ikusteko non dauden argi bat du. Koilareak txip bat dauka, txakurra edo katua galduz gero, GPSarekin lokalizatu ahal izateko. Lepoko horiek QR kode bat dute ere, eskaneatzen duzunean, maskotaren jabearen datuak ematen duena, horrela errazagoa izan dadin jabea aurkitzea maskota galtzen bada. Azkenik, osasunaren monitore bat du, zure maskotaren bihotz taupadak eta pultsoa neurtzen dituen, beti osasuntsu dagoen jakiteko.

Gure zerbitzuak eskaintzan duen azkeneko gauza **etxeko zaintza** da, hau da, jabearen etxetara joaten gara, izan ere, katuak bezalako animali "beldurri"-ak lasaiago egoteko bere etxean dagoela jakinda. Horrela, nolabaiteko segurtasuna ematen diogu maskotari, langile bat etxe horretara doalako eta, noski, etxeko jabea orduro informatuta egongo da eta argazkiak eta bideoak bidaliko dizkiogu bere maskota ondo dagoela eta etxea ere ondo dagoela ikus dezan. Zerbitzu hau Gipuzkoa mailan bakarrik egiten dugu, beste herrialdeetara joan gabe.



Zergatik aukeratu gure enpresa?

Animalien Erresuman, maskotak zoriontsu eta seguru sentitzea da garrantzitsuen. Zure txakurrak behar duen guztia jasotzen du gurekin, osasunetik eta ongizetatik hasita dibertsiora. Gure helburua da zu lasai egotea zure txakurra ondo pasatzen ari den bitartean eta zainketa onenak jasotzen dituen bitartean.

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) mundu osoan partekatutako 17 helburu dira, Nazio Batuen bidez ezarritakoak, 2030erako mundu hobe eta orekatu bat lortzeko helburuarekin. Helburu horiek pobrezia, gosea, osasuna, hezkuntza, berdintasuna eta ingurumenaren babesa dira, funtsezkoak gizarte guztien ongizatea bermatzeko.

GJHak betetzea ezinbestekoa da munduko baliabideak modu zuzen eta eraginkorrean kudeatzeko eta ingurunea eta gizarteak babesteko. Hori betetzeak etorkizuneko belaunaldientzako mundu jasangarriagoa eta bidezkoagoa bermatzen laguntzen du.

3. Osasuna eta Ongizatea

Albaitaritza-zerbitzuak eskaintzean, maskoten osasunari eta ongizateari laguntzen diegu, arreta mediku egokia jasotzen dutela ziurtatuz. Animalien ongizatea, gizarte osasuntsuago eta orekatuago baten parte da.



9. Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura

Txakurrentzako lepoko adimendunetan teknologia txertatzean, animalien sektoreko berrikuntza teknologikoaren aldeko apustua egiten ari gara. Horrek jabeen eta maskoten bizi-kalitatea hobetzen du, haien segurtasuna monitorizatu daitekelako.



LEHIAKIDEAK

Gure enpresak ez du nolabaiteko lehiakiderik, gaur egun ez dugukako ikusi guk egiten dugun gauza bera egiten duen enpresarik, baina benetan lehiakide txiki batzuk baditugu, eta honako hauek dira batzuk:

1. Inguruko Maskoten Hotelak: Gure enpresaren inguruan beste animalia-hotel bat badago, lehiakidetzat hartuko da, guk ere hotel bat daukagulako eta jendeak agian nahiago duelako hotel horretara joan gurerara baino.

2. Albaitaritza Klinika Lokalak: Guretik gertu albaitari-klunikaren bat baldin badago, lehiakidea ere izango da, agian jendeak nahiago du klinika horretara joan gurera baino, hobe delako edo edozer gauza delako.

3. Txakur/katuen Ileapaindegia: Gure ileapaindegia zerbitzuek lehiakide dituzte Eibar eta inguruan maskoten ileapaindegia zerbitzuak eskaintzen dituztenak.